



MUNDURA 2025

Proiektu artistikoak nazioartera eramateko laguntzak

- **Artearen eta kulturaren alorreko jaialdi edota lehiaketetan parte hartzea**
- **Artearen, musikaren, antzerkiaren edo dantzaren alorreko emanaldiak eskaintzea**



Oinarriak eta info

ESKATZAILEAK

- Pertsona fisikoak
- Kulturaren esparruko irabazi asmorik gabeko entitateak

KANPO GELDITZEN DIRA

- Deialdiaren aurreko bi urteetako baten Mundura dirulaguntza izan duten pertsona edo entitateak
- Kultura Zuzendaritza Nagusiaren dirulaguntza izenduna duten entitateak
- Beren izaeragatik edo xedeagatik, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren jarduera esparruekin zuzenean zerikusirik ez dutenak
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko beste laguntza deialdi batzuetan espresuki sartuta daudenak edo hobeto egokitzen direnak. Beraz, bidezkotzat jotzen diren eskaerak deialdi horietan sartuko dira
- Emanaldi edo erakustaldi artistiko bat eskaintzeko helbururik gabe egindako joanetorriak, hala nola ikastaroetan parte hartzea eta beste batzuk

DIRU KOPURUA

Dirulaguntza gehienez ere 20.000 €-koa izango da.

Diru laguntzaren zenbatekoak ez du gaindituko diruz lagundu daitekeen programa garatzeko aurreikusitako gastuen %70a.

Horrek esan nahi du proiektu bakoitzak gutxienez aurrekontuaren% 30 ziurtatu behar duela beste iturri batzuen bidez: publikoak, pribatuak, pertsonalak...

AURKEZTU BEHARREKOAK

Eskaera orria bete behar da honako hau aurkeztuta:

1. Proiektuaren laburpena eta aurrekontua (diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua eta orekatua) (**derrigorrezkoa**)
2. Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jarduerarengaineko azalpen txostena (**derrigorrezkoa**)



Eskaera orria egoitza elektronikoan dago eskuragarri

ESKAERA EPEAK ETA TRAMITAZIOA

AZKEN EGUNA: 2025KO APIRILAREN 10

ZURIKETA AURKEZTEKO

Dokumentazio hori aurkezteko epea 2025ko urriaren 15ean amaituko da.

ORDAINKETA

Dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 60, dirulaguntza emateko ebazpenarekin batera, eta gainerako % 40a, urrian.

TRAMITAZIOA

Prozesu osoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza administratiboaren bidez egin behar da: (<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu>)

GOMENDAGARRIA: Ziurtagiri digitalen bat erabiltzea (B@kQ, DNle...)

BALDINTZAK

- Estatu espainoletik kanpo
- Frantzia bada, abiapuntutik 200 km-tara
- Deialdiaren urte naturalean gauzatzea, (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean)
- Ekonomikoki bideragarria izatea
- Eskatzaileek jasandako gastuak baino ez dira diruz lagunduko.
- Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra aurkez dezake deialdi honetan
- Egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan

LAGUNTZAK EBALUATZEA ETA EMATEA

1. FASE	60 PUNTU
Programaren interesa mapa kulturalaren barruan	20
Programaren kalitatea eta originaltasuna	20
Programaren finkatze-maila	5
Inplikaturako tokiko eta kulturako eragileekin parte hartzea eta koordinatzea	10
Berrikuntza	5
2. FASE	40 PUNTU
Aurrekontuaren egokitasuna	10
Euskararen presentzia eta erabilera	10
Genero ikuspegia txertatzea	10
Gazteak sartzea	10